



# ARAUDIA

2017 - X. FUTBOL ZAZPI TXAPELKETA

1. Jokoan, atezaina eta sei jokalaria egongo dira.
2. Partidu aurretik beroketak egin nahi dituzten taldeek, berdegunetik kanpo egingo dituzte, FUTBOL 11ko ateen atzealdean edo areto-futboleko zelaian.
3. Partiduren batera talde bat ez bada agertzen, edo gutxienez bost taldekide ez badira agertzen, txapelketatik kanpo geratuko da taldea. Gainerako taldeek, talde horren kontra lortutako puntu eta golek, balioa galduko dute.
4. Partidua hasi baino 15 minutu lehenago gutxienez, taldeak futbol zelaian egon behar du.
5. Partidu bakoitzak, 25 minutuko bi zati eta bost minutuko atsedena izango ditu. Ez da denbora geldituko eta luzapena epaileak erabakiko du zenbatekoa izango den.
6. Behin partidua hasita, arrazoi garrantzitsu batengatik bertan behera utzi behar bada, momentuko emaitza hartuko da kontuan. Oraindik hasi gabe badago, beste data bat aukeratuko da.
7. Nahi adina aldaketa egin daitezke partiduko, epaileari baimena eskatu gabe. Aldaketa hauek, zelai erditik egingo dira eta jokatzeko ari dena irten arte ez da bestea sartuko.
8. Atezainak hankarekin ateratzen duenean (ateko sakeak edo baloia lurrean dagoenean izan ezik), baloia ezin izango da kontrako taldearen zelaira pasa. Hau gertatuko balitz, kontrako taldeak zelai erditik falta aterako luke.
9. Area kanpoan egindako falta jaurtiketa guztiak zuzenak izango dira.
10. Atezainak ateko sakea egiten duenean, bere taldeko jokalaria areaz kanpo jaso beharko du baloia. Honela ez balitz, sakea errepikatu beharko litzateke.
11. Hesia, zazpi metrotara jarriko da.
12. Jokoan dauden bi taldeek ekipamendu berdina edo antzerakoa badute, kanpoan jokatzeko duen taldeak jarriko du petoa.

## 13. EPAILEAK

- a. Ligaxkako eta kanporaketetako partiduetako epaileak, taldeetako parte hartzaileak izango dira. Taldeko kide bat edo taldeak izendatutako pertsona bat izan daiteke epailea. Epailea eta marrazainak azaltzen ez diren kasuetan, partiduko epailea izatea zegokion taldea zigortua izango da 5 puntu gutxiagorekin.
- b. Epaileaz gain, talde bakoitzak bi marrazain izango ditu. Bilera egunean jakinaraziko da zein partiduetako epaile izango den talde bakoitza.

- c. Salbuespena: atzeratu/aurreratutako partiduen kasuan partidu horretako epailea izatea zegokion taldeak izango du epaile izateko ardura. Baina, data/ordu aldaketak eragozpenak sortzen baditu, antolakuntzari jakinarazi beharko dio eta irtenbiderik egokiena bilatuko da.

#### **14. TXARTELAK**

- a. Futbol 11n bezala izango dira, baina balioa galduko dute partidua amaitzean.
- b. Jokalari batek txartel gorria ikusten badu, ezin izango du partidu horretan jokatzeko jarraitu, baina txartela ikusi eta bost minututara beste taldekide bat aterako da jokatzera.
- c. Taldea 4 pertsonekin geratzen bada, partidua bertan behera geratuko da eta emaitza 3-0 izango da. Momentuko emaitza 3-0 baino hobea bada, hau mantenduko da.
- d. Jokalari batek 2 txartel gorri zuzen ikusten baditu, ez du partidu gehiago jokatuko.

#### **15. PUNTUAKETA**

- a. Irabazleak hiru puntu jasoko ditu.
- b. Berdinketa kasuan, talde bakoitzak bina puntu jasoko ditu.
- c. Galtzaileak puntu bakarria jasoko du.

#### **16. PARTIDUETAKO BERDINKETA KASUETAN**

- a. Ligaxkan, ez da luzapena egongo.
- b. Bigarren fasean, berdinketa kasuan, luzapena egongo da. Bost minutuko bi zati jokatuko dira eta oraindik ere berdinketa egonez gero penaltiak jaurtiko dira. Bost penalti jaurtiko dira. Berdinketa kasuan, talde bakoitzak penalti bat gehiago jaurtiko du, talde batek penaltia huts egin arte.

#### **17. BIGARREN FASERAKO SAILKAPENA**

A) Aiztonaga ligara talde bakoitzeko lehenengo bi sailkatuak pasako dira.

B) Legazpiko Gazteak Ligara talde bakoitzeko hirugarren eta laugarren sailkatuak pasako dira.

#### **18. TALDEEN SAILKAPENA**

- a. Talde bakoitzak lortutako puntuak hartuko dira kontuan.
- b. Berdinketa kasuan, berdinduta dauden taldeen arteko partiduetan lortutako puntuak hartuko dira kontutan. **(Bi taldek baino gehiagok berdintzen duten kasuan bakarrik).**
- c. Berdinketa kasuan, golaberaje partikularra hartuko da kontuan.
- d. Oraindik ere berdinketa badago, golaberaje orokorra hartuko da kontuan.



e. Oraindik ere berdinketa badago, aldeko gol kopurua hartuko da kontuan.

19. **PITXITXI SARIA:** Jokalari batek partidu berean 3 gol baino gehiago sartzen dituenean, pitxitxi sarirako 3 gol zenbatuko dira txapelketako partida guztietan.
20. Gainerako araudia, FUTBOL 11an erabiltzen denaren berdina izango da.
21. Bilera honetan adieraziko dira lehen faseko ordutegi aldaketak eta 2.fasean egon daitezkeen egutegi arazoak.
22. Partiduak larunbatetan eta igandetan jokatuko dira soilik. Ostiraletan jokatzea salbuespena izango da.
23. Izena eman ez duenak ezin izango du jokatu. Txapelketa hasi aurretik izena eman duen jokalaria batek jokaterik izango ez balu, bere partez beste batek jokatzea izango du.
24. Txapelketako instalazioetan eragindako edozein kalte, kaltea eragin duen pertsonaren ardurakoa izango da.
25. Antolatzaileek eta epaileek hartutako erabaki guztiak mugiezinak izango dira.
26. Arautegian agertzen ez denaz, antolatzaileak eta epaileak arduratuko dira.
27. Antolatzaileak onartzeko eskubidea erreserbatua dute, baita txapelketaren garapena oztopatu edo arauak hausten dituzten taldeak edo partaideak txapelketatik kanpo uzteko eskubidea ere.
28. Antolatzaileek ez dute txapelketan gertatutako lesio, gaixotasun eta lapurreten gaineko erantzukizunik izango. Dena den, partiduetan Gurutze Gorriko anbulantzia eta botika-kutxa bat egongo da.
29. Txapelketa honetan parte hartzen duten talde guztiek, araudi hau onartu beharko dute.

LEGAZPIKO  
GAZTEAK K.E.